

ESTOS SON LOS EXPEDICIONARIOS

# BALAIKE

1,50 €

98. zenb.



Kepa Urruzuno



Rafael Orofino



Fernando Cearreta



José Javier Odriozola



Josu Aguirre



Jesús Manuel Murúa



Darío Fernández de Arroyabe



Joakin Zubeldia



José María Llavori



José María Gutiérrez



Luis María Arislegui



Javier Carballo



Juan Belmonte, 29 behea  
tel.: 943 86 15 45  
faxes: 943 86 17 42  
email: baleike@topagunea.com

#### Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

#### Administrazio batzordea

Esther Etxeberria  
Xabier Azkue

#### Erredakzioa batzordea

Esther Aizpurua  
Eguzki Agirrezabalaga  
Antxoka Agirre  
Juan Luis Romatet  
Josu Waliño  
Gorka Zabaleta

#### Koordinatzailea

Juan Luis Romatet

#### Kazetariak

Antxoka Agirre  
Xabier Aizpurua  
Itsaso Ibarra  
Maitane Urbietta

#### Marraskigilea

Jon Manzisidor

#### Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Xabier Aranguren,  
Jon Maia, Jon Sudupe, Esti Esteibar,  
Dani Carballo, Joxe Mari Llavori,  
Inaxio Tolosa, Inaxio Manterola,  
Belen Golmaio, Izaga Garzia, Haize  
Galarraga, Koldo Landaluze, Beñat  
Fernandez de Arroyabe, Luis Mari  
Aizpurua, Ihintz Linazisoro, Jose  
Manuel Gonzalez Aramendi,  
Ludoteka, Natur Taldea

#### Argazkiak

Baleike, Euskaldunon Egunkaria

#### Diseinua eta maketazioa

Argi Aizpurua

#### Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

#### Banaketa

Andoni Ormazuri

#### Publizitatea

943 86 15 45 tel. (Esther)

#### Inprimategia

Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)

#### Tirada

1.000 ale

#### Lege gordailua

SS-405/94

#### ISSN

1136-8594

**Baleikek** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.




**6** Ze berri?:  
goiko plaza: azoka berria  
alde zaharreko bizilagunentzat

**8** Makroerreportajea  
zumaiarrek Kilimanjaroren tontorrean

**13** Matusalen  
gazteen gehigarria?

**20** Ekonomia  
Sarean egitasmoaren balantzea



**22** Kirola  
piraguistak gerra emateko prest


**24** Kultura  
ja, ja, ja...

**26** Agenda  
inauterietako programa

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaia Udala





Luis Mari Aizpurua

## Moxal jana Inda-Mendin

Datorren larunbatean, otsailak 2, Kandelaria egunean, oso afari berezia izango Inda-Mendi elkartean, Larretxon, Itzurun hondartzatik hurbil. Orain dela hamabi urte (oker ez banago), lagun batzuek moxal jana antolatu zuten eta, ordutik, urtero-urtero antolatu dute, gero eta jende gehiagorekin, gainera. Hasieran hogeit bat lagun elkartzen ziren moxal haragia dastatzera, baina urtetik urtera gehiago hurbildu dira eta aurtengoan ehun lagun inguru izango dira Inda-Mendiko mahaietan, ehun kilo inguru zaldi haragi jateko asmoz. Esan beharra dago, gainera, beste herri batzuetako jendea ere etortzen dela, Bilbokoak edo urrutiagoak ere bai, gastronomi festa bitxi honetan parte hartzeko asmoz.

Afariaren bultzatzaile nagusia Ramon Chamorro gogotsua dugu, azken santelmotan Beheko Plaza gizarte zentroak antolatu zuen olagarro zoparen lehiaketa irabazi zuena eta uztailearen amaieran Tuin (Pontevedran), San Telmoren inguruan elkartutako Tui, Fromista eta Zumaia herrien arteko anaitasun jardunaldien barruan, berrehun lagun baino gehiagorentzako afari-merienda prestatu zuena.

Atzera afariaren hariari helduta, esan beharra dago hasieran Pepe Rivas sukaldari zenak ere makina bat lagundu zuela afaria prestatzen, eta gero Angel Bakedano chef donostiar ezagunak lagundu diola zeregin horietan, beste lagun askorekin batera, jakina; izan ere, laguntza handia beharrezkoa baita animalia zati kaskarrenekin haragi erregosiaren goarnizioa prestatzeko eta animalia zatirik gozoeak parrillan erretzeko. Halaber, lagun horiek arduratzen dira afaria zerbitzatzeaz, edari eta guzti (sagardoa eta ardo beltza) eta bukaeran kafe konpletoa. Bukatzeko, bazkalondoan giro aparta izaten da, gure herriko abesti eta guzti.

Afarian jende ugari hartzen du parte: gazte eta zahar, euskaldunak eta erdaldunak, gizon eta emakume (emakumezkoak oraingo ez)... jende askotarikoa, laguntasun giro bikainean elkartzen dira urtean behin moxal haragia jateko, urtean zehar seguruenik ez baitute beste aukerarik izango horretarako. Antzeko zerbait gertatzen zen garai batean (gerraren ondoren) babarrunekin: batzuentzat (diru aldetik eskas zebiltzanentzat) eguneroko eta nahitaezko jakia zen, baina beste batzuk (dirudunak) Albiztur edo Usurbila joaten ziren babarrunak jan nahi baldin bazituzten.

Bihotz--bihotzez, eguna ondo pasatzea opa diegu, eta bilera gastronomikoa eredu izan dadila beste bilera batzuk ere egiteko, Zumaia osatzen dugun oso pentsaera desberdineko jendea bildu eta elkar ulertzeko, errespetu eta aniztasunaren baitan.



dekorazioa  
**ALBERDI**

696 726188  
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a

*Alberdi*  
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6  
Tel. 861155



## guturak

### Zumaiako Udalari:

Urtarrilaren 12an nire posta-kutxan Zumaiako Udalak bidalitako idazki bat jaso nuen. Idazki horren bidez, jende aurrera zabaltzen zenuten Zumaiako Foruen Enparantza z.g.an azoka jartzeko IGOKA. (Iharduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuak) espedientea izapidetu (tramitatu) zenutela.

Otsailaren 27ko 3/1998 legearen arabera, jendeak deritzon azalpenak Gipuzkoako Aldizkarian (BOG.) argitaratu eta 15 eguneko epe barruan egin behar dira.

Oharra Gipuzkoako Aldizkarian 2001eko abenduaren 14an azaldu zen. Zumaiako idazkiaren irteera data 2001eko abenduaren 27koa da, beraz 13 egun geroago. Niri idazkia 2002ko urtarrilaren 12an iritsi zitzaidan.

Datu horiek ikusita, zera jakin nahiko nuke:

- Nondik atera beharko genituzke epeko 15 egunak behar izanez gero?
- Zertarako bidaltzen duzue etxez etxe idazki bat, horren aurka joan ezin daitekeenean?
- Otsailaren 27ko 3/1998 legearen arabera, herritarrek jakinaren gainean jarri behar badituzue, ez al litzateke egokiagoa, zuzenagoa, ETIKOAGOA epea pasa baino askoz lehenago egitea?

Nire ustez hau errespetu falta da, eta lotsagarria iruditzen zait Udalak herritarrei itsusikeria hori egitea. Egia esan, ezin dut ulertu zergatik ez duen Udalak bere herritarrekin garbiago jokatzeko, Udalak BOGera bidalitako eskaera 2001eko azaroaren 21eko data duela jakin eta gero

Zumaia, 2002ko urtarrilak 15

A.M.I.

NAN: 15.984.633

### Itzurungo gaztetxea

DVren herriko kartan eta Baleike-ren aurreko zenbakian gaztetxea eskatzen zuen gure auzoko etxabeetan elkartzen den gazte talde batek.

Ez da herrian eskari hau egiten den lehenengo aldia, eta azkenekoa ez bada ez da, behintzat, arrazoi faltagatik izango.

Arrazoa daukate Zumaiako gazteek euren kasara bildu eta gauzak elkarrekin antolatzeke lokalik ez daukatela diotenean. Tabernara edo geure auzokoa bezalako etxabe batera jo behar.

Itzurunen duela lau zapabost urtetik egunero (sargori, trumoa edo izotza egin) dozenaka biltzen dira, eta ez kondiziorik onenetan (sargori, trumoa edo izotza egin eskaileretan eserita, egonean). Portzieto arrazoa daukate zerri eginda uzten dutela diotenean ere (garbitu ez eta gero publikoki barkamena eskatzea hipokrita samarra).

Gaztetxearen inguruko eztabaidari heltzeko garaia badela diote, eta bada garaia gutxienez Udalak gazte-ekiko daukan jarrera alda dezan. Eurek ez dute ia ezer antolatzen eta gazteen aldetik sorturiko ekimenei ez diete inolako jaramonik egiten. Okerrago, Gazte Batzordearen kasuan, gazteen ekimenei (festetarako antolatzen dituzten txosna, koadrilen arteko herri kirolak, bazkari herrikoia eta abar) oztopoak jartzen dizkiete lagundu beharrean.

Kasu honetan, bilera batera deitu omen dituzte gazteak eta bada zerbait.

Ea ekimen honek aurrekoek baino zorte gehiago duen eta gazteei kasu pixka bat egiten zaien (edo zaigun, oraindik gazteak gara eta).



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

## EGOKI



Erloju  
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan



Arantza Aramendi

## EGUZKI

G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea  
943 86 22 65 - 609 46 56 37

# Gutxi falta da azoka inauguratzeko



Azken aste hauetan Goiko Plazako lanek sekulako abiadura hartu dute eta badirudi otsailaren lehen egunetan inauguratu ahal izango dela Azoka eraberritua. Eroskik eta Zumaiako Udalak adierazi dutenez, otsailaren 2an irekiko dira atea, nahiz eta azken asteetan baserritar eta arrandunak lanean aritu postu berrietan. Irekiera honekin amaituko da polemikaz beteta egon den eraberritze prozesua. Lortuko al du Eroski berriak Alde Zaharra berpiztea?

Eroskikoen lehen asmoa azoka eraberritua Gabonetarako irekitzea zen, baina lan batzuk (zurgintzakoak,

adibidez) atzeratzearen ondorioz, hilabete osoa atzeratu behar izan da merkataritza zentro berriaren inaugurazioa. Azken hilabete hauetan Eroskik presa asko sartu dio enpresa eraikitzaileari lanak ahalik eta azkarren amaituta egon zitezten. Goiz eta arratsalde, asteburuak barne, aritu dira lanean. Horrek, noski, eragozpen ugari sortu die bizilagunei.

Azoka zaharreko denda berria inauguratu baino astebete lehenago itxi zituen atea kooperatiba zaharrean kokatutako Eroskik. Urteak ziren Eroskiren denda hau gainbehera zihoala: hornidura falta, zikin itxura,

eta Eroskiren supermerkatu berriekin parekatuta, historian atzean kateatuta geratu izanaren irudia. Orain lekuz aldatuko da eta espazio berria izango du. Zubi Txikitik harantza joatera ohituta dagoen jendea erakarriko al du Eroski berriak? Zenbatekoa izango da azokaren inguruan dauden dendek jasango duten galera? Hori, denborak esango digu.

## Arrandunak gustura. Besteak...

Nahiz eta iritzi kontrajarriak egon, badirudi azoka berriko postuetan lan egin behar duen jendea, arrandunak,

## Galdona



Mendaro marinela, 1      Tel. 943 861117  
943 143346  
Juan Belmonte, 15      Faxe. 943 861330

## GANBARA



Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

## ALTZARIAK OSTOLAZA ARROZTEGIA



Mota guztietako  
altzariak eta  
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1  
TEL: 943 861325

behintzat, gustura daudela azoka eraberrituarekin. Arrandunen esanetan, argi eta aire gehiago sartzen da orain, eta aurrekoa baino garbiagoak dira postu berriak. Nobedadea delako edo, zumaier gehiago hurbiltzen omen da orain azokara. Lehen azoka zapaltzen ez zuen jendea hurbiltzen hasi omen da egun hauetan Goiko Plaza ingurura erosketak egitera. Berritasunaren lehen aste hauek pasatu ondoren ikusi beharko da zein den zumaierrek ematen duten erantzuna.

Arrandunak gustura daude, bai, baina badirudi ez dela gauza bera gertatzen baserritarrekin. Azokaren arkupeetan ezarritako postuak txiki eta estuak direla entzun diegu. Mahaiak ere jarri gabe zeuden gu pasatu ginenean eta jenero guztia metalezko aulki baten gainean zuten jarrita. Iritzia emateko oraindik azkar dela diote, eta gauzak hobera egingo dutela espero dute baserritarrek.

Proiektua diseinatzeko orduan baserritarrekin ez dutela pentsatu, diote galdetu diegun bizilagun batzuek. Baserritarrek orain dituzten postuak estuak eta txikiak direla diote. Batzuen esanetan, baserritarrek azokatik botatzeko modua da hau.

Dani Carballo arkitektoak esan digunez, baserritarrek ez dira ohitu postu berrietara. Halako organizazio falta izan dela ere esan digu. Dirudienez, baserritarrek postuak beraien artean zozketatu behar zituzten, baina hori gertatu ez eta lehena heldu zenak nahi zuen postua hartu zuen beretzat. Postuen jabegoa erabakitzen den unean, postu bakoitzean baserritarra edo baserriaren izena jarriko dira. Oraindik ere bizkarra gordeko dieten toldo batzuk



jartzea ere falta dela gogoratu digu Dani Carballo.

Goiko Plaza inguruan aparkatzen diren autoekin egon daitezke arazoak. Momentu honetan baserritarren postuetatik hurbilegi aparkatzen dira autoak eta horrek hainbat eragozpen sortzen ditu. Kontua da autoek hor aparkatzeko eskubiderik izango ez balute, Alde Zaharrak pairatzen duen aparkaleku faltaren arazoa areagotu egingo litzatekeela. Adierazi digutenez, orain egun batzuk, bizilagunen ordezkari batek bilera izan zuen Udaleko ordezkari batekin arazoa konpontzeko asmoz. Bileraren ondoren ez omen zen ezer argitu. Bizilagunen esanetan, orain inork erabili ez eta oinezkoentzat diren kaleak, Zunbillo edo Olazabal Idazkaria kaleak, adibidez, autoak aparkatzeko erabil daitezke. Horrez gainz Alde Zaharrean azken urteetan jarritako lorontziak eta halakoak kendu, edo mugitzea eskatzen dute, horrek autoak aparkatzeko leku gehiago egotea ekarriko bailuke.

Azokako lanak amaitu baino aste batzuk lehenago trafiko arazo ugari

izan dira Alde Zaharrean. Nahikoa izaten zen kamioia bide erdian geratzea, atzetik auto ilara sortzeko. Egundorietan bizpahiru udaltzain aritu dira trafikoa zuzentzen. Eroski berria irekitzearekin batera arazo hauek ugaritu egingo direla uste dute bizilagunek, eta udaltzainak goizero trafikoa erregulatzen egoteko eskatzen dute.

## Azoka erakargarria

Baserritarren eta trafikoarekin zerikusia daukaten arazoak alde batera utzita, denek onartzen dute oso polita eta erakargarria geratu dela azoka. Arkupeetan jarri diren argazki handiek asko laguntzen dute iritzi hori sortzeko. Makina bat pertsona geratzen da leihoetara begira, argazki zaharrei so.

Bitxikeria moduan, esan dezagun horma bat bota zenean, Udaleko abisuak ezartzeko erabiltzen zen iragarki taula agertu zela. Taula bertan uztea erabaki zuten, eta dagoeneko hasi dira bertan eskelak eta iragarkiak itsasten.

*Era guztietako instalazioak etxebizitzan, pabilioi eta herriko argietan*



**GAZTE, S.L.**

**ELEKTRIZITATEA**

Trenbide pasealekua, 5 1. pabilioia

tel: 943 14 34 02  
fax: 943 86 25 36

Talerra: estazioko kalea, 23  
tel mugikorra: 608 14 34 09





## Duela 25 urte Kilimanjaroren gailurrean

Franko hil berria zen eta mundu guztia oso animatuta zebilen. Herriko gazte talde batek, koadrila eta giro ezberdinetakoak, Kilimanjarora espedizioa egitea erabaki zuen. Bizarra lepoan eta ikurrina ilegala altzoan hartuta, 6.000 metroen bertigoa eta kontinente beltza, Amaia zinek esploratzaileen pelikuletan ikusitako hura, probatzea zen euren helburua. 25 urte geroago Inda-Mendin elkartu dira bazkari baten bueltan lehenengo abentura handi hura gogoratzera. Batzuen buruak soilduta daude, baina Kilimanjaroko oroitzapenak ez.

Jokin Zubeldia eta Fernando Zearretaren arteko elkarriketa batetik sortu zen espedizioaren ideia. Jokinek Mont Blanc-a igo berria zuen eta Fernando Aljerian egon berria zen. "Biok Interdieselen egiten genuen lanean, eta hantxe geundela, ni Mont Blanc-ari buruz eta bera Afrikari buruz, zergatik ez diagu Afrikako altuena egiten?, atera zitzaigun", gogoratu du Jokinek.

Nafarroako espedizio bat ezagutzen zuten aurreko urtean Kilimanjaro eta Kenya mendizerra egin zutenak. Behar zuten informazio guztia eman zieten nafarrek eta bertako kide batek bidai

agentzia batean lan egiten zuenez, euren laguntzarekin bidai berdina egitea erabaki zuten.

Bitartean, herrian lagunei eta lagun lagunei ideia komentatuaz taldea osatzea lortu zuten: portadan azaltzen diren hamabiak gehi Rafael del Pilar. "Enpresariak, proletarioak, lizentziatuak... oso jende ezberdina elkartu ginen. Baita helburuetan ere. Batzuek mendia zeukaten buruan eta beste batzuek bidaiatzeko gogoia. Baina hasieratik ederki moldatu ginen", dio Fernandok. "Turismoa egin nahi zutenek Kilimanjaro igo ondoren

Kenyara ordezkostara joan zitezkeela erabaki zuten. Eta bigarren zati hori euren poltsikotik ordainduko zutela", azaldu du Jokinek. Taldea osatzeko espedizioaren beharrak ere hartu zituzten kontuan. Mediku bezala Kepa Urruzuno hartu zuten, zumaiarren semea; Jesus Murua zarauztarra oso eskalatzaile ona zenez alderdi tekniko arduratuko zen; Luis Mari Aristegi 'Banco Vizcaya'n lan egiten zuenez espedizioa diruzain; Javier Carballo DVko korrespondentsala zenez espedizioa erreportari; Jose Mari Gutierrez, Guascor-eko semea, finantziarioaren arduradun; Rafael

**KILIMANJARO**

**LOS DOCE DEL  
"ZUMAYA 76",  
EN LA CUMBRE**

Anunciábamos el domingo que la expedición montañera guipuzcoana "Zumaya - Kilimanjaro 76", compuesta por doce hombres de nuestra provincia habían logrado escalar su objetivo: el Kilimanjaro, la cumbre más alta del continente africano. Ayer intentamos ampliar esta noticia y para ello nos pusimos en contacto con los familiares de uno de los expedicionarios, donostiarra por más señas.

—Efectivamente, según tengo noticias de mi hijo —dice la madre de Fernández de Arroyabe Tellería, traductor oficial de la expedición— lograron escalar, todos los montañeros, la cumbre del Kilimanjaro. Sé que se encuentran muy bien y según mis últimas noticias, se dirigen al Kenya, para intentar su ascenso.

Así, pues, éxito total de la expedición al Kilimanjaro.

urte haietakoak dira. Gainera, lehenengo herri txikia izan ginen horrelako bat egiten", dio Luis Mari Aristegik.

San Inazio egunean abiatu ziren Donostiatik Frankfurt-erako hegazkina hartuta. Egun batzuk lehenago Rafael del Pilarrek hepatitis harrapatu zuen eta Zumaian utzi behar izan zuten, telexaren kargura.

### Lehenengo egunak eta igoera

Frankfurtetik Nairobi iritsi eta bertan egin zituzten lau egun beharrezko papeleo guztia osatzen. Kanean gora eta behera ibili eta dendari denekin erregateatzeko aprobetxatu zuten. "Guk zineman txapel eta guzti ibiltzen ziren esplora-

Orofinok, geologoak, azterketa zientifikoa egingo zuen; Dario Fernandez de Arroyabe, ingelesez hitz egiteaz gain ingeles itxura omen zeukana, itzultzailea izango zen...

Irten baino lau hilabete lehenago hasi ziren entrenamenduekin. Aste barruan hiru egunetan ariketa fisikoak egiten zituzten, Rafael del Pilar-ek prestatutako taula bati jarraituz, eta asteburuero bi mendi irteera egiten zituzten.

Antolakuntzarako bilerak Anaden egiten zituzten eta bide batez, elkar ezagutzen joateko, baita giro onean afaldu ere.

Finantziarioari dagokionez, Udalak eman zien zati bat eta herriko enpresen artean beste bat. Baina ez zitzaizkien iristen eta 10.000 pegatina atera zituzten, bakoitza 25 pezetan, saltzeko. Inguruetan denak kolokatu ezin eta San Ferminetan Iruñera joan ziren euren pegatinekin.

Espedizioak ikus--min handia sortu zuen Zumaian, eta baita polemika ere. "Jo ni ere besteek ordainduta jungo ninukek bakaziota", esaten zuten batzuek", gogoratu du Llaborik. 'Radio San Sebastian' eta 'Radio Popular'-ek elkarriketa bana egin zieten, eta gero 'Diario Vasco' eta 'La Voz de España'-k jarraipena egin zioten espedizioari. "Egun ez litzaioke inolako garrantzirik emango, baina garai hartan espedizioena nahikoa gauza berria zen eta oso modan zegoen. Everest-erako lehen euskal espedizioak

tzaileen pelikulak ikustetik bakarrik ezagutzen genuen Afrika. Gogoratzen dut inpresio handia egiten zigula han egote hutsak", dio Jabier Odriozolak. Ezezagunak beldur pixka bat ere eragin ohi du. "Lehen egun haietan gutako bat pioletarekin ateratzen zen kalera. 'Bazpare' esaten zuen", kontatu du Fernandok. Kenyako independentzia lortu berria zuen eta batik bat Mao-mao gerrilaren lurraldeetan zurienganako arrazakeria zegoela abisatu zieten etorri aurretik. Israeldarrek Entebeko aireportuan buruturiko atentatuak Kenya eta Ugandaren arteko liskarra piztu zuen eta militarrez josita topatu zuten hiriburua, baina, oro har, bertakoa jende abegikorra zela ikusi zuten.

Afrikarren lasaitasunaz ari direla Tanzania bidean Masai batekin gertatutakoa oroitzen dute guztiek. Zaindaria batek autobusetik bota egin zuen dirurik gabe zihoalako eta gizonak oinez jarraitu omen zuen desertuaren erdi-erdian, inolako protestarik egin gabe.

5 egunetako baimena zuten Nika parke nazionalean egoteko. Lehenengo egunean 25 porteatzaile hartu eta Mandarako mendi aterperaino (2.728 m) iritsi ziren. Bigarren egunean krater batzuen ondoan dagoen Horonbo Hut-ekora (3.780 m). Eta hirugarren egunean Kibo Hut kanpamentura (4.680 m). Lehen zorabioak eta buruko minak hasiak zirenez, altuerara egokitzeko laugarren eguna bertan

**ilarzi**

Alai auzategia, 2  
Tel. 943 14 33 24

**ekin** ISTALLAZIO ELEKTRIKOAK  
ELEKTRIZITATEA, S.L. TELEKOMUNIKAZIOAK

Erribera kalea 18 Behe TIF/FAX: 943 143097  
20.790 Zumaiak ekin@ekin.es

Instalazioak/banatuak ofizialak

CANAL+ VISA Televisión Movistar  
CANAL DIGITAL TELEFONOS Movistar

**LEIZE**  
taberna

Juan Belmonte, 6

B. Etxegarai 2, behea  
943 86 27 14

YIN YANG

GAZTEEN ERROPA

**ZALLA**  
Taberna - Erretegia

\* plater konbinatuak  
\* otartekoak  
\* oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 943 862387

**Zerbitzu Ofiziala**

**ZUMAIAMOTOR**

Santixo auzoa, 22  
Tel./Faxa: 943 143143





pasatzea erabaki zuten. "Erabaki hori klabea izan zen gero gailurra egin ahal izateko. Gurekin batera zetorren Gasteizko espedizio bat, gu baino hobek, zuzenean joan ziren gora eta nahikoa gaizki ibili ziren", dio Aristegik. Egun haietan neska italiar bat biriketako edema batek jota hil zela ere gogoratzen dute.

Egokitze eguna gorabehera ez zitzairen erraza suertatu azken igoera. Javier Carvallok bost mila metrotik goraxeago buelta hartu behar izan zuen xixko eginda. Eta gainerako guztiek gailurra egitea lortu arren, batzuk balantzaka iritsi ziren.

Egusentia zela eta ikusmira ikaragarria zegoela gogoratzen du Aristegik, kantinplorako ura izoztuta zegoela Jokinek, berak bost aldiz botaka egin zuela Llavorik, ikurrina astindu zutela eta malko bat edo beste egon zela Fernandok eta hainbeste entrenamendu eta kezkaren ondoren kristoren poza hartu zuela Odrik.

### Taldea bitan banatuta

Zazpi lagun Kenya mendizerrara joan ziren eskalatzera. Hamar egunetan Batian, Lenana, Thomson, Dutton eta Peter gailurrak egin zituzten, guztiak 4.700-5.200 m bitartekoak eta sokarekin igo beharrekoak.

Kilimanjaro igota zutenek altuerak ez zien hainbeste eragin, eta teknikoki hura baino zailagoak ziren arren, eta Jokin falta zitzairen arren, erabat arrakastatsua izan zen egonaldia.

Paisaiatz gain, oihaneko gaua izan zen gehien txunditu zituena. "Egunez dena isil-isilik egoten zen, baina iluntzearekin batera sekulako mugimendua eta zarata hasten zen kanpamenduaren inguruetan. Tximuak, hegaztiak,

intsektuak, elefanteak... Entzuten egoten ginen lorik egin ezinda", kontatu du Odrik.

Jokin falta zitzaizela esan dugu, izan ere, espedizioko buruak liana batzuetan tarzanena egiten ari zela sekulako zartatekoa hartu zuen. Ingelesezt hitz bat jakin gabe, eta bideko salto bakoitzean minez aieneka, autobusez 200 km egin behar izan zituen beste lauekin Monbasan elkartzeko. Lau horiek plan erlaxatuagoa zuten, baina probetxu handikoa baita: kostaldea bisitatu hondartza eta hotel exotikoekin; Indikoko ur gardenetan urpekaritza egin; Kikuyu eta Masai herrixketan tribu hauen bizimodua eta kultura ezagutu; Malindin suge eta krokodiloen haztegietan buelta bat eman; Voi-ko parkean hiru safari irteera egin... Hainbeste gauza pasata ez dakite zer kontatu. "Pentsa elefante baten eraso ere izan genuen", dio Aristegik.

Talde osoa elkartu, Nairobin erosketa batzuk egin (tartean zerra arrai

disekatua) eta hilaren 26an Frankfurt-a bidean ziren. Herriko jendeak ongi etorria egin zieten Bilboko aireportuan.

### 25 urte geroago

Inda-Mendira iritsi ahala, Kilimanjaro-rotik jaistean bakoitzari egindako grabazioa jarri zien Javier Carvallok, eta bazkalondoan diapositibak ikusi zituzten.

Espedizioko kideek Aconcaguara egin zuten bigarren bidaia, eta batzuk Kilimanjarora ere itzuli ziren bost urte geroago, baina hura pasa zenetik bakoitza bere aldetik ibili da eta berriro elkarteak ilusioa egin diela diote. Zertan aldatu diren galdetuta, egunkariko argazki zaharrari erreparatzen diote barrezka. "Nik berrogehitza hamar kiloak juxtu pasatzen nituen. Pentsa...", dio Llavorik.

Bidaia hark eurentzat zer suposatu zuen galdetuta, Fernandok laburbildu du erantzuna. "Gauza asko izan ziren, baina nik uste garrantzitsuena bidaiatzen ikastea izan zela. Ordu



INMOBILIARIA

Amaia

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

STiOM

taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 943 860151

aurrera denok hortik zehar asko ibiltzekoak izan gara. Batzuk mendian eta besteak bestela", dio. Batek Andeetako bidaia dakar gogora, besteak Himalaiara egin zuena, hirugarrenak Asia...

Batzuk oraindik ibiltzen dira mendian baina berriro elkarrekin Kilimanjarora joateko ez dute gogo handirik azaltzen. Gauza berriak probatu behar direla dio Aristegik, bera Erribera kalean ibiltzen dela gustura Fernandok eta Odrik motxilero bezala zerbait egiteko asmoa baduela dio.

Hala ere, Inda-Mendin berriro elkartzeko asmoa badute, urtean behin ez bada bost urtean behin.

## Egunerokoa

Rafael Orofinok bere egunerokoa jaso zituen bidaiaren gorabehera guztiak. 25 urte geroago, espedizioko kide bakoitzak kopia bana gordetzen du. Orri mordoa da, baina hasi eta bukatu irakurtzekoak, umorez idatziak. Zati batzuk, behintzat, jaso nahi izan ditugu hemen.

Nairobira iritsi eta pare bat egun egiten dute kalean gora eta behera. Lehenengo impresioak eta erregateoak.

*"Aterrizamos en Nairobi a las 6'30 hora Euzkadi, 5'30 hora Frankfurt, pero aquí son las 7'30. Ya tenemos un caldo de horarios.*

*Fotografiamos nuestra propia bajada y vemos los primeros soldados nativos con gorra de plato y abrigos azules y metralleta al hombro. Esto último no desentona con lo que ya conocemos, en otro color.*

*(..) Jokin está furioso, pues ha pagado no se cuanto por una pulsera de "Real Elephant Hair" a un vendedor improvisado y resulta que otro le ha desengañado, diciendo que es de plástico, y para colmo, se la ha quemado para demostrarlo. Me echa las culpas a mi, que hice de traductor y regateador*

*(..) Durante la comida, uno de los camareros, Samuel, nos explica que hay 3 tipos de pulseras de "Elefante". Las de plástico, que se reconocen por su precio bajo, la superficie lisa y brillante y porque se queman. Las de hierbas de Uganda, mucho mas parecidas a las auténticas, pero que sí se oprimen, crujen. Por último las auténticas (...)*

*(..) Javier sabe que ha hecho un cambio muy ventajoso y el nativo*

*debe estar convencido de lo mismo. Para el trueque, Javier le ha extendido un recibo, para justificar ante la policía que el reloj no es robado, firmado por Felipe González, secretario del PSOE".*

*(...) Buscando un saco de plástico un chaval nos ha hecho recorrer toda la ciudad. ¿Vamos lejos?, le preguntaba. No aquí, aquí. Pero no llegábamos nunca. Tienen todo el tiempo a su disposición, por eso no importa la dimensión del espacio*

Igoera. Porteadoreak, hotza, paisaia ikusgarriak, altuerak eragindako zorabioak...

*"(...) Después de desayunar con galletas Barbita, que son una porquería, y copos de avena, que son peores aun, salimos hacia el siguiente refugio. El camino, en fuerte pendiente, entre la selva, es precioso. La selva acaba bruscamente, dando paso a una taiga, con arbus-tillos y hierba. El suelo es polvoriento, entre negruzco y marrón. Hay siempre vivas amarillas.*

*(..) Un porteador acude a Kepa. Se ha hecho un rasguño. Kepa le cura, con gran lujo de desinfectantes, colorantes y gasas. El accidentado se va loco de contento y a los 5 minutos hay cola de porteadores ante la tienda de Kepa.*

*(..) Uno de los alaveses, al que veíamos bajar haciendo eses y tumbos, nos dice "Vaya timo. Vaya timo de monte". Refiriéndose a las nulas dificultades técnicas que presentaba.*

### GIZARTEKINTZA zentru soziala

#### KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

### AMETZA taberna

Santiago auzoa, 4  
tel: 943 143370





Uno de los italianos nos da mas detalles, realistas. Él lo ha logrado y bien, pero es duro.

Un compañero suyo ha sufrido un ataque histérico y quería echarse al cráter. La cantante del grupo italiano, a la que conocimos en Horombo, ha sufrido un edema pulmonar:

(...) La noche dura aquí 12 horas y esas han sido las 12 peores horas de mi vida. No he dormido nada, con dolor de cabeza, una presión en las sienes insoportable y un desasosiego angustiados. Dario y Aris que normalmente duermen y roncan a placer, han estado intranquilos (...).

(...) Se oyen gritos de ¡GORA EUZKADI ASKATUTA! Alguno ha debido de llegar a la cumbre. Si. La ikurriña ondea 50 o 60 metros por encima de donde me encuentro. Me animo. Pero cada paso es mas y mas difícil.

(...) Fernando pregunta, entrecortado, cuanto falta. ¿No ves la cumbre? pregunto. Contesta que no, que no ve nada. Debe de encontrarse agotado, pero con ánimo. Veo como muy, muy despacio, sube. Sobre mí, veo a algunos. Jose Mari me grita ¡Ánimo! Yo no se ni como avanzo. Doy pasos que pierdo a medias, otros son vacilaciones y tambaleos. Ya llego. Saludos. Son las 8 de la mañana.

Taldea banatu egiten da. 8 Kenya mendilerroa, eskalada egitera. Beste 4ak, tartean Rafael, kosta ezagutzera. Tren kolonial ingeles batean egiten dute kostarako bidaia. Bigarren egunerako Jokin euren gana bueltan dator, lianatik erori ondoren.

(...) A las 7 nos despiertan con el té. Lo tomamos y vamos a desayunar. Estos ingleses saben vivir bien, a pesar de que beben té.

A las 8'30 entramos en Mombasa. El paisaje es verde, alomado. Se ven poblados con viviendas aisladas y techos de palmera. La gente viste camisa y una tela estampada, tipo tanga de Tanzania, a modo de falda. Algunas mujeres cubren la cabeza con una especie de turbante y otras van desnudas de cintura para arriba.

El verdor del suelo y arbolado, llega hasta el mismo borde del mar (...)

(...) Después vamos a un poblado donde nos enseñan las escuelas. El maestro nos explica el sistema de educación y nosotros preguntamos muchas cosas con respecto a la cultura y la educación.

(...) El jefe nos ofrece pastas y plátanos. Insiste en que cojamos por lo menos dos de cada. Empiezan las danzas un tanto iguales, haciendo coros y saltos. Cantan canciones exaltando a Homo Keniata y el Mau-mau. Las mujeres sacan a bailar a Aris, y yo casi me troncho de risa a la vez que saco fotos.

(...) La cena será hoy en la piscina del hotel, en otra zona social. Es la primera vez que ceno al borde de una piscina. La cena tipo self-service, es como siempre abundante y de calidad. Vamos a engordar. Tomamos unas copas al empezar la música. Nuestro grupo tiene un aspecto original. Javier, animado. Jose Mari apagado. Aris, en pantalón corto. Jokin, durmiendo, y yo un poco de todo.

Hainbat safari ere egin zituzten eta afrikako abereak gertutik ezagutzeko aukera izan zuten.

(...) En el Hall, sobre un tablero, hay una relación de los animales que se vieron el día anterior. Hoy decía: 67 elefantes, un león, 6 rinos, e infinidad

de cebras, búfalos, impalas etc. En la habitación yo he visto hormigas de mas de centímetro y medio, que no estaban contabilizadas en el tablero.

(...) Las bandas de monos, son bastante poco sociables, y por lo general, nos enseñan los cuartos traseros... Tres elefantes cruzan la pista, justo delante nuestro. Son grandes. Yo estoy algo harto de conocer a los animales siempre dándonos la espalda. Javier y yo salimos del coche con nuestras máquinas de fotos. Silbando, llamo la atención de uno de ellos, que vuelve la cabeza. Clic... Continúan alejándose y les sigo, volviendo a llamarles la atención. El jefe del grupo se para. Enfoco. 20 metros. Se ha debido enfadar, gira sobre sí, mirándome de frente. Abre sus grandes orejas dirigiéndolas hacia delante, levanta la trompa y lanza un terrible barrido mientras inicia unos pasos rápidos hacia mí. Clic. Corro, corro como un desesperado, hacia el coche, mostrando yo ahora mi espalda al elefante. Sin darme cuenta, me he alejado mucho del coche. Estaré a unos 100 metros de mis compañeros. Y corro. Son solo unos segundos, durante los cuales he sentido los terribles pasos del elefante tras de mí... En esos pocos segundos, me he visto alcanzado, y sucesivamente lanzado al aire, pisoteado, clavado en aquellos colmillos, triturado. He pensado en la desagradable papeleta que dejo a mis compañeros. Lo he pensado todo en esos momentos. Una mirada rápida hacia atrás, y veo a mi perseguidor que vuelve con sus compañeros. Paro. Afortunadamente, sólo pretendía asustarme, y lo ha conseguido plenamente. He pasado un apuro horroroso. Estoy descompuesto y con el pulso aceleradísimo. Un susto bien merecido por temerario e inconsciente.



Azkue Autoak

Tel: 943 861433  
Estazioko kalea, 19 Faxa: 943 861067



ALBAITARITZA  
KLINIKA

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea  
Tel. 943143310  
Tel. mugikorra: 608- 775508

astegunak: 8:30 - 10

Larrialdiak  
- 24 ordu  
- zeure etxean

Ohizko tratamenduez gain:

- Laser bidezko depilazioa
- Mikropigmentazioa
- Tatuajeak


**CORO  
PRIETO**  
Esteticista

Bonifazio Etxegarai plaza txoa z/g Tel. 943 861322



# matusalen

gazteen gehigarria?




## Futbolzale ez naizenez

HAIZE GALARRAGA

Futbolzale ez naizenez, kosta egiten zait futbolzaleak partidu bat ikusten ari diren bitartean edukitzen duten pasio uea ulertzea. Sentimendu horrek bere alde onak eta txarrak ditu, eta konturatu naizenez horrek eragin nabarmenak ditu futbolzaleen egoera fisikoan. Real--Celta partiduan, Realak 0-1 aurreratu zen, futbolzaleen aurpegiak begiraturaz irribarre txikiak eta ilusio hitzak entzun zitezkeen. Egoera horrek ez zuen gehiegi iraun, izan ere, Celtak bi gol sartu baitzituen, gure futbolzaleen zoritxarrerako. Momentu honetan, itxuraz, kanpotik behintzat, gauzak ondo asimilatuta dituztela adierazi behar dute: "Ze txarraituken", "Hauek segunda ziazatik", "Ze ingo ziou ba" eta horrelako esaldi konformistak ateratzen dira barruko frustrazioa nolabait ezkutatu nahian. Frustrazio horiek pesimismoarekin elkartuta ondorio kuriosoak ditu futbolzaleengan. Besterik gabe, irudiak ikusi eta zuek epaitu.

### OTSAILA ETA AZTERKETAK



Otsaila eta azterketak elkarrekin doazen bi kontzeptu dira unibertsitatean dabilen edonorentzat. Zenbat ote dira Euskal Herrian estuasun hau urtero pasatzen duten ikasleak? Milaka. Zenbat erdi gaixotuta bukatzen dutenak, zenbat kolpe zorririk jotzen ez dutenak, zenbat azterketarik gabeko mundu batekin ametsetan dihardutenak? Milaka. Gure hezkuntza sistemak azterketak sakralizatuta ditu, gainditzea da helburua ez ikastea. Ikastera erakargarritasunez bultzatuko gaituen hezkuntza sistemarik ez dagoela dirudi, azterketak beste erremediorik ez dagoenean egiten dituen egitura bat. Noizko irakasleek ikasleen proposamenak aintzat hartu? Noizko ikasleek ikasgaiarekiko etengabeko interesa azaldu? Noizko? Bitartean, ukalondoak ahalik eta gutxien urratuta ea gainditzen dugun!





# mugimendua sortzen ari da

gaztetxea,  
gaztele-  
kua, gaz-  
tetzokoa

Ostiral gaua. Gaueko 10:00. Azkenaldian zumaiko gazteen artean izan den aztoramendurik handienari buruzko albisteak jasotzera hurbildu gara Itzurun bidean dauden etxabeetara. Eskailerak, hormak, etxabeak,... gaztez gainezka zeuden, oilategia zirudien hark, harik eta argazkia ateratzeko apur bat isildu ziren arte. Pare bat argazki eta berriro ere buila zen nagusi. Gazte hauek leku bat nahi dute, GAZ-TETXEA.

Uda aldean hasi ziren beraien artean serioski planteatzen gaztetxe baten beharra zegoela Zumaian. Udako gau epeletan eginiko berriketaldietan makina bat aldiz irteten zuen gaiak: ez zeukatela nora jo, aterperik gabe zeudela, beste herrietan bazela tokirik eta hemen ez... Udazkena iritsi zenean ordea gaua zapuztu egin zen eta guztiek

eskolara joan beharra izan zuten. Han ere ordea (nola diren gauzak eh!) gaia gogora ekarriko zien liburu bat irakurri zuten, Galdu Arte.

Xepe-ren bizipenak, Atraskuako egonaldia eta Azkoitiko gaztetxearen sorrerako gorabeherak kontatzen dituen nobelak beraien egoeraz jabetzera bultzatu zituen gazteok. Liburua eta beraiek bizi zuten errealitatearen artean hainbat berdintasun zeudela konturatu ziren, eta noski, gaia gero eta gehiago ari zen hedatzen. Zuhaizbide auzategiko etxabeetan hiru bilera orokor egin zituzten, gaia planteatuz eta udaletxera joan beharra zegoela esanaz. Bospasei koadrilatako 70 lagun biltzen dira bileretara, guztiak ere 14 eta 17 urte bitartekoak.

Dena dela, beraien buruhausteez gain, bizilagunekin ere arazoak izan dituzte.

Herriko txoko askotan ibili dira gazte hauek eta guztietan izan dute iskanbilaren bat bertako bizilagunekin: Itzurun bideko etxabeetan, plaza gorriko etheen azpian, poligonon,..."Sarritan udaltzainei eta ertzainei deitzen diote gu bidaltzera etor daitezten. Egun batez etxabeak ez diren eskailera batzutan geunden eta udaltzainak etorri ziren gu bidaltzera, "benga fuera de aquí, iros a otro sitio" esanaz. Nora arraio joango gara, denean egoera berdina bada. Jendeak gazteak nahi ditu baina bere etxe azpitik urruti." Pentsa nolakoa den egoeraren larritasuna non poligonoko bizilagun batzuk bankuak kentzeko firma biltzen ari direla jakin duten.

## udalarekin bilera

Orain arteko hau guztia ikusirik, ordezkari batzuk izendatu eta udaletxearekin hitzordu bat jartzea erabaki zuten. Bi



aldeen arteko bilera hau Urtarrilaren 24an burutu zen udaletxean eta Montse Arana zinegotziarekin elkar-tu ziren. Gazteek garbi asko zeukaten zeren bila zihoazen: gazteak lasai egoteko toki baten beharra azaldu zioten, beraien proiektuak eta egonaldiak burutzeko aterpe bat.

Udaletxearen erantzuna berriz zeharo baikorra izan zen. Beraiek ere arazoaz jabetuta zeudela esan omen zien, bizilagunen kexa mordoia jasotzen

omen dute-eta. Mota guztietako eta herriko auzo ugariatako kexak jaso omen dituzte udaletxean gazteen ibilerak salatuz, eta arazoari irtenbide egokia bilatzeko gogoz zeudela adierazi zuten. Bestalde ludotekako garaia amaitu ondoren, 12 urtetik aurrerakoentzat ere espaziorik ez dagoela badakitela eta soluzioa bilatu behar zaiola omen diote. Honela bada, aurrekontuetan arazo honi aurre egiteko partida bat onartua badagoela jakin

zuten, eta diru hori proiektu berri bat egiteko erabiliko dela. Dirua bai baina...

...proiektua falta zaie. Udalak proposamena aurkezteko eskatu dio gazte taldeari, nolako tokia nahi duten eta zer jartzea nahi duten azaltzeko. Orain lanean hasteko garai dela konturatu dira gazteok eta buru-belarri proiektu bat egituratzeko ordua dela. Argazkirako guztiak elkartzen badira ere, lanerako jendeak ez daukala jarrera baikorrik aipatu dute bozeramaleen artean. "Jendeak Gaztetxea egin-da ikusi nahi du, eta ez proiektuarekin lanean ihardun. Gero gazteen tokia jartzen bada, kapaz da jende bat hori kaka zaharra dela esateko. Denok hasi behar dugu lanean. Oraindik batzuk ez dute jakingo udaletxearekin bilera izan dugula."

Gogoia badute, proiektua sortzen hastekotan dira, baina tokia? Espazioa behar du honelako mugimendu batek. Udaletxeko bileran lekuaren gaia mahai gaineratu zenean anbulatorio zaharra zegoela esan zitzairen. Gazteek hura txiki-gia dela esatean, udaletxearen asmoa txikitik handira joatea zela jakin ahal izan zuten. Espazio hark ondo funtzionatzen bazuen, beste leku oparoago batean pentsatzen hasiko liratekeelarik.

Nolako topagune nahi duten galdetzean, lasai egoteko lekua behar dutela diote lehenbizi. Horrezaz gain ikastaroak, hitzaldiak, irteerak, tailerrak, e.a. antolatuko litzuzkeen mugimendua izatea izango litzateke helburua. Dena den beste herrietako gaztetxeen eta mugimenduen nondik norakoak jakitea interesgarri iruditzen zaie, besterik ez bada abiapuntu izango litzatekeen oinarria izateko. Honela informazioa bilatzea da gazte hauen hurrengo helburua, bertarako proiektu propioa osatu eta udaletxera aurkezteko. Martxoan izango omen dute ziuurrenik datorren bilera eta han jarraituko dute bi aldeen negoziatioek. Albiste onak beraz gazteentzat, ea nortasun gogorrrerako gazte mugimendu bat sortzen den herrian, hutsunea badago eta!



TaGure inguruko makina bat unibertsitariok joan behar izaten du kanpora ikasketak burutzera. Hauetariko asko gainera, bertan geratzen dira bizitzen eta aste bitartean ikasle pisuetan igarotzen dituzte egunak. Asteburutan kontatzen digutena soilik dakigu, baina benetan zer gertatzen da ikasle pisuetan? Matusalen-ek burutu beharreko misioa dela iruditu zitzaigun; han joan zen motxila hartu eta kapitalera.

komunetik toaila soil batekin, arropak eramatea ahaztu zitzaiola esanez. Inork inori ez zion kargurik hartzen. Nabarmena zen gurasorik ez zegoela; esan bezala askatasun lurrina usaintzen zen.

Beno egiatan usaintzen zena zikinkeria zen. Alfronbrak eta moketak era guztietako materiala zuten itsatsirik, "izan ere niri tokatzen zait aste honetan baino zeharo pasatu zait turnoa" dio etzanda zegoen

## Matusalen, ikasle pisuan

Igogailurik gabe hainbat solairu igo ondoren, sarraila zeharo ondo ez zeukan atetik sartu nintzen pisura. Lehenengo begiratuan sentipen batek bildu ninduen, askatasunak. Izan ere han zeuden pare bat lagun sofan etzanda berriketa batean, beste bat logelan musika topera zuela, bakarren bat sukaldean afaria prestatzen (olio errearen kea zegoen behintzat), eta azkenik han irten zuen beste batek

batek. "Beti dago zerbait interesgarriagorik egiteko, lagun on batekin berriketan jardutea adibidez. Plan txarra al da?"

Sukaldera sartu eta afaria prest zegoela ohartu nintzen. Solomoa frijituta alde batetik; bestetik erreta. Sukaldeko mahaiaren bueltan denek aipatzen dute etxeko jatekoaren parekorik ez dagoela, eta pisuan ahal dena jaten dela. "Ez gara konplikatzen jatordua prestatzerako orduan, armairuan eta frigoan zer dagoen ikusi eta ekin!". Begiratu nuen ba armairuan, eta ikasleen plater izarrak diren pasta eta arrozaz gain honako zegoen: oso marka arraroa zuen esne tetra-brick bat, patata zorroak (zorrokada patatatik baino gertuago seguraski) eta latak tomatea. Apalak egurrezkoak. Harraska berriz hobe bakean utzita.

Baina bat batean alaitu zitzairen aurpegia egun berezi bat aipatzean: osteguna. "Ostegunak sekulakoak izaten dira, asteburua asteko ez dago horrelako metodorik. Zer hobe parranda on bat baino?" Ederki agertzen du honek, ostegunak, ostiral bezperak izateaz gain, jai egiteko aproposak ere badi-rela. "Pisuetan dagoen jendeak irteten du gehienbat, eta kristoren gaugiroa egoten da; oso giro jatorra sortzen da asteari bukaera eman eta asteburua hasteko." Gasteizko Kutxin eta Bilboko Antzokian sartutako orduak fruituak ematen dituztela garbi utzi nahi dute, "bizitza nolakoa den kalean ikasten da, eta ostegunak aproposak dira horretarako. Eta norbait bereziarekin bukatzen baduzu berriz, ba... uff!!"

Ikasle pisuek zerbait berezia dutela ikasteko moduko bisita izan zen, azkenean inork gutxik bueltatu nahi izaten baitu etxe zaharrera. Matusalen-i ere nahikotxo kostatu zitzaion.



# gustatzen al zaizu azoka nola geratu den

inkestak



**Luisa Mari Aristondo**

Plaza polita dago, txukuna, baina baserritarrentzat eskasa da. Honek trafikoa arazoak ekarriko ditu. Lehen gaizki bazegoen, orain okerrago. Oso gaizki gaude hemen, arazo handia dago alde horretatik.



**Iratxe Aizpurua**

Baserritarrak nola geratu diren ez zait gustatzen. Oso estu daude eta iruditzen zait berarek berdinentzatzen dutela. Ez dakit Alde Zaharra berpiztean eraginik izango duen, baina guri ondo etortzen zaigu.



**Juan Luis Blanco**

Itxuraz ondo dago, gustatzen zait, baina iruditzen zait baserritarrak botatzeko modu sutil bat dela. Alde Zaharra berpiztea etxeak merketzarekin etor daiteke, baina hori bai, aparkalekuak falta dira.



**Aser Martin**

Estetikoki polita geratu da, baina baserritarrekin gaizki portatu dira. Azoka guretzako perfektu dago, oso hurbil. Aparkalekuarekin arazoak handitu egingo dira, oso toki gutxi dago eta.



**Nora Berastegi eta Arritxu Rubio**

Baserritarrak arrinkonatuta geratu dira. Oso leku gutxi geratu zaie, eta mehorak egin beharrean okerrera joan dela uste dugu. Honek berpiztea ekarriko duen, auskalo. Denda batzuei onura ekarriko die, besteei galera. Aparkalekuekin arazoak daude. Orain kamioi asko dabilta eta atasko handiak sortzen dituzte. Gero arazo berdina egongo dela uste dugu. Hemen udaltzainak egon beharko lukete trafikoa ordenatzen.



Erribera kalea Tel. 943 861523



**Auto-konponketak**  
**ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01





# olarro zopa



Ihantz Linazisoro.

## Sexualitatea

### Abortua

Oraindik ere, egun hainbat gazteren artean entzun dezakegu haurdun geldituz gero, ez luketela abortatuko eta horrelako kontuak. Bai, egia da, haurdun gelditzen zarenean pentsarazi egingo dizula zer egin, baina oraindik langabezian, gurasoen etxean eta zure etorkizunean zer egingo duzun ez dakizunean, abortatzea alternatiba egokia izan liteke. Gainera, hasierako asteetan ez dago umerik sortuta zure barnean. 5. hilabetetik aurrera hasten da umea dagokion forma eta pertsona izateko ezaugarriak hartzen. Zoritxarrez, beste behin ere eliza judeo-kristauaren aztarna ikus dezakegu hainbat gazteren pentsaeran.

Hala eta guztiz ere, honekin ez dugu adierazi nahi abortua denik sistematik egokiena, onena aurretiaz antisorgailuak erabiltzea baita. Zoritxarrez, oraindik ere abortuaren zifrak ikusirik, 30 urtetik beherakoak dira gehien abortatzen dutenak, eta suposatzen da berauek direla sexu heziketan informazio gehien jaso dutenak. Abortatu dutenen % 87k antisorgailurik erabili ez duelako joan da abortatzera, % 8 metodoaren hutsegite batengatik eta % 5 metodoa oker erabiltzeagatik. Askok pentsatu izan dute antisorgailurik gabe sarketa behin praktikatzegatik ez direla haurdun geldituko eta bat-batean hurrengo hilean ez zaie hilekorik jaisten! A zer kasualitatea!

Beraz, argi dagoena da, norbaitekin erlazio sexual lasai eta gustukoak izan nahi badituzu, egokiena beti ere, badaezpada, patrikan kondoi bat (eta nahi izanez gero baita obulu baginala ere) erabiltzea dela. Kondoia hautsiz gero, obuluak geldiaraziko baitu espermatozoidea, horrela, zure gorputzarekin gusturago sentituko zara eta ez duzu gero buruhausterik izango. Eta, bestela, kondoiak huts eginez gero ere, biharamuneko pilularen alternatiba ere hor dago. Bitartean, goza ezazue!

Jose Manuel Gonzalez Aramendi. **Kirol sendagilea**

## Kirol medikuntza

### Emakume Kirolariaren Sindromea

Emakume gehienek kirol eta jarduera fisikotik osasun eta ongizaterako onura interesgarriak lortzen dituzte. Baina elikadura eta atsedenaekin orekatuta ez dagoen kirolak ondorio ezkorak eta zenbait kasutan oso txarrak ekar diezazkieke emakumeei.

Oraindik ez dakigu zenbat emakume gaztek sufritzen duten Emakume Kirolariaren Sindromea. Elikadura gorabeheratsuak, amenorreak eta osteoporosiak osatzen dute sindrome hau. Ikus dezagun zer ezaugarri dituen.

Janariarekin erlazioz gertatzen dauden desordenak hasierako

apetitu falta anorexia eta bulimia bihur lezake. Amenorrea hilekorik eza da, garatuta dauden emakumeen artean gertatzen dena: 16 urterekin hilekoa ez izan edo hainbat aldiz hilekoa ondo etorri ondoren, bat-batean ez etortzea hiru aldiz edo gehiagotan. Osteoporosia hezurretako gogortasuna galtzea da, haustura arrisku handia sortzen duena.

### Zergatik agertzen da? Zerk bultzatzen du Emakume Kirolariaren Sindromea ?

Pisu baxuegia lortzeko edo pisu baxuari eusteko emakumeak jasotzen dituen presioak izaten dira errudun. Askotan entrenatzaileek, gurasoek, gizarteak presio handiegia egiten diete kirolari gazte hauei pisu baxuegia izateko. Eta zenbait kasutan kirolariak beraiek dira beren burua presionatzen dutenak. Ondoko kirolak egiten dituztenek dute arriskurik gehien: gimnasia, dantza klasikoa edo aerobic-a, erresistentziako lasterketak edo pisuaren arabera mailakatuta daudenak (judoa, arrauna...)

Sindrome honek kirol errendimendua jaitsi ez ezik, gaixo fisikoa ere sortzen du (pertsona zaharraren hezurra dituen gazteak deitzen diete) eta baita gaixo psikologikoa ere (anorexia, bulimia).

Ez dakigu zenbat neska dauden egoera honetan eta zenbat ari diren sartzen. Izan ere, askotan seinalerik garbiena -hilekoaren falta- ez da komentatzen. Prebenitu eta tratatu egin behar da lehenbailehen. American College of Sports Medicine erakundearen ustez, neska edo emakume hauekin bizi edo lan egiten duen jende guztiek (guraso, entrenatzaile, zuzendari, mediku eta abar) eta bereziki kirolariek beraiek ikasi egin behar dute nola susmatu, nola antzeman, eta nola prebenitu eta tratatu sindrome hau.

Hilekorik eza, nekea, pisua galtzea eta janari eskasa dira seinaleak susmatzeko eta medikuarengana jotzeko aholku eske.



tresna digi  
internet  
scanner



Eusebio Gurrutxaga, 6  
Tel. 943 14 33 95



## Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

## Itzurun

ATEAK

- Material guztietako leihoak
- PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsiak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

Benat Fernandez de Arroyabe. **Sukaldaria**

## Sukaldaritza

### Lapa zopa

- **Osagaiak** (8 lagunentzat):

3 kg lapa

200 g zopako

Tipula bat

4 baratxuri

6 piper txorizero

Egindako tomatea (basokada bat)

2 1/2 litro ur

gatz

- **Nola egin**

Ondo garbitu lapak, ura sarri-sarri aldatuta. Kendu ura eta jarri lapak lapiko batean, sutatik aparte. Beste lapiko batean ura jarriko dugu berotzen, eta irakiten hasitakoan, ur beroa lapen lapikora botako dugu. Horrela, lapak askatu egingo dira oskoletatik. Lapen haragia aparte gorde, geroko.

Ura "telazko" txano batetik pasatu.

Jarri piperrak ur berotan, azala errazago kentzeko. Jarri sutan lapiko bat, olio pixka batekin, bota tipula txikituta eta gorritzen haste denean, bota zopakoa eta tomatea, eta utzi pixka batean su ezitan, ondo egin arte. Bota lapen salda eta piperren mamia eta utzi bi orduz irakiten.

Paela batean olio jarriko dugu berotzen. Lehenengo baratxuri txikitua bota; gero, lapen haragia. Hori guztia bota lapikora eta bota zopari pikantea, bakoitzak nahi adina.

On egin.

**Oharra:** lapak zopetara botatakoan ez da komeni irakitea, lapen haragia gogortu egingo baita.



Azkoitiko enpresa batek **galdaragilea** (kalderoa) behar du (69818/1 eskaintza).

- **Baldintzak:**

Ikasketa maila: LHII edo baliokidea.

Planoak interpretatzeko ezagueria.

B1 gida baimena.

- **Eskaintzen da:**

12 hilabeteko lan kontratua.

Berehala hasteko.

13.700 euroko ordainsari gordina.

Azkoitiko enpresa batek **galdaragilea** (kalderoa) behar du (68899/5 eskaintza).

- **Baldintzak:**

Lehen mailako ofizial lanean esperientzia.

Urola Kostan bizitzea.

- **Eskaintzen da:**

Lan kontratu mugagabea.

Berehala hasteko.

13.300 euroko ordainsari gordina.

Azpeitiko enpresa batek **fabrikazioburua** behar du (67894/4 eskaintza).

- **Baldintzak:**

Ingeniaritza teknikoan diplomatua.

3 urteko esperientzia.

Euskara maila gorena.

- **Eskaintzen da:**

Lan kontratu mugagabea.

33.000 euroko ordainsari gordina.

Zarauzko enpresa batek **sukaldari laguntzailea** behar du (68836/3 eskaintza).

- **Baldintzak:**

2 urteko esperientzia.

Urola Kostan bizitzea.

- **Eskaintzen da:**

12 hilabeteko lan kontratua.

13.600 euroko ordainsari gordina.

Eskaintza hauetako bat interesgarri gertatzen bazaizu eta lortzeko aukera egin nahi baduzu, gogoan hartu eskaintzaren erreferentzia eta hautagai moduan sartua izatea eskatu Zumaiako Institutoko Langaiko arduradunari (943-860809 edo 943-860810)

TXOMIN AGIRRE, z/g  
TEL: 943 865369

**KAIA**  
Kafetegia

CROISSANTERIA

pizzak  
hanburgesak  
bokatak...

**Marina**

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

ile-apaindegia

**Solarium**

ETXEZARRETA, 9  
TEL: 943 86 10 21

# Solario eta ostarrenak sarean

Askok hala pentsatzen ez badute ere, itsasoak ematen dituen fruituak egunen batean agor litezke. Iragarpen katastrofista? Auskalo. Kontua da egunetik egunera arrain gutxiago harrapatzen dutela arrantzaleek. Horrek, noski, prezioek gora egitea eragiten du, eta, nola ez, erosleen haserrea areagotzea ere bai. Arrain eskasia horrek lanpostu asko desagertzea ekar lezake, bai arrantza-leena, bai horien inguruan mugitzen diren hainbat lagunena ere. Egoera korapilotsu honen irtenbidea akuikulturaren egon daiteke. Hain zuzen, produkzio mota honen abantailak aztertzeke egitasmo bat jarri zen martxan orain pare bat urte eta Zumaiako Institutua izan da partaidetako bat.

Akuikulturaren helburua itsasoko animaliak lurrean, laborategietan, "sortu" eta "egitea" da, gero produktuak saltzeko edo birpopulaketan laguntzeko. Akuikultura munduan oso hedatuta badago ere (oso urrutira joan gabe, Galizian), Euskal Herrian ez da oso ezaguna. Ez da ez akuikulturaren lan egiten, ez ikertzen, nahiz eta krisian dagoen sektore batentzat (arrantzarentzat, alegia) etorkizunerako irtenbideetako bat izan daitekeen. Axolagabekeria horren arrazoia, agian, bere garaian Azti-Zio erakundeak emandako iritzia izan daiteke. Izan ere, erakunde horren esanetan, akuikulturak ez zuen inongo etorkizunik gure artean. Inaxio Manterola biologoak, Zumaiako Insti-



Zumaiako Institutua ere partaide izan dira egitasmoan.

## Helburu nagusiak

Sarean Egitasmoak hiru helburu nagusi ditu: solario (abakando) gazteen ekoizpena, gero itsasoa birpopulatzeko; ostarrenen (itsas trikuen) ekoizpena barne instalazioetan eta mikroalgen erabilera ura arazteko.

Solario gazteen ekoizpenean ez dira lortu hasiera espero ziren emaitzak. Helburua Orrua arrain haztegiko ur tankeetan abakando txikiak sortzea zen, gero itsasoa birpopulatzeko, abakandoa gure kostaldean desagertzeko zorian baitago. Solario txikiak lortu ziren, baina 15 bat egun zituztela, itsasoan libre utzi aurreko azken

tutuko irakasleak, dioenez, uste absurdo horren ondorenak sufritzen ari gara.

Hemen ez bezala, Europar garrantzi handia ematen diote. Hain zuzen, Europako Batzordeak onartutako laguntzez baliatu da Ikaflan, Euskal Autonomi Erkidegoko lanbide heziketa publikoko ikastetxeak batzen dituen erakundea, akuikulturaren abantailak aztertzeke. Egitasmoa "Sarean" izenarekin bataiatu zuten eta finantzatzeko orduan Europako Batzordea, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Orruako arrain haztegia eta Ikaflan beraren laguntza izan du. Horiez gain, Irlandako Galway Unibertsitatea, Getariako Elkano kofradia eta

fasean zeudela, denak hil ziren. Sarraski horren eragilea gaffkemia bakterioa da, Ipar Amerikako abakandoen artean sekulako triskantza egin duen berbera. Arrain haztegitik ekarritako abakando-amaren batek, edo gehiagok, gaixotasun hori zeraman bere baitan, gaitza arrautzei pasatu eta bakterioa tanke guztian hedatu zen. Abakando-amen bila arrain haztegitara joan behar izan dute, arrantzaleek oso solario gutxi harrapatzen baitituzte. Arrantzaleek diotenez, azken urteetako emaitzarik kaxkarrena izan omen da.

Bigarren helburuarekin, ostarrenen ekoizpenarekin, alegia, arrakasta handia izan dute. Saioaren helburua barne instalazioetan itsas trikuak



**MENDI - ONDO C.B.**

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21

Tel. 943860074 - 943861569



**METRO**  
taberna

ogitartekoak  
pintxoak

Upela plaza, 7  
tel: 943 862620



Txomin Agirre kaia, 6

Tel./Faxa: 943-143057

Z U M A I A



ekoiztea zen. Horretarako, itsasotik hartutako ostarrenei injekzioak eman zizkieten. Injekzio horien bitartez, ostarrenak obulua eta esperma bota zituzten. Jarraian ernalketa eta itsas trikuen larben jaiotza etorri zen. Lehen fasean mikroalgekin eta ondoren algekin elikatu ondoren, oso azkar hazten dira ostarrenak gure kostaldean. Hori dela-eta, eta prozesua hain garestia ez denez (ostarrenak geldirik, hormari itsatsita egoten dira hazten dauden bitartean), etorkizun oparoa izan dezake industria honek. Ostarrenen gonadak jan egiten dira munduko zenbait lekutan. Hemen itsas trikua jateko ohitura sortzea besterik ez da geratzen.

Horiez gain, beste hainbat animaliakin ere egin dituzte ikerketak: haitzetako izkira, txokoa, txibia eta olagarroa. Izkira eta txokoekin arrakasta handia izan dute, tankeetan jaiotzeaz gain, oso ondo hazi baitira. Txibiek arrautzak errutea lortu dute, baina ezin izan dute aurrera egin. Olagarro-arena aparteko kasua da, etorkizunean

elikagai garrantzitsuenetako bat izan baitaiteke.

Jasotako informazio guztiarekin txostena bidali dute Europako Batzordera. Horrez gain, material didaktikoa ere prestatu dute egitasmoko partaideek, hala nola, CD-ROM bat eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan banatuko den bideo bat.

Badirudi, emaitzak ikusita, akuikulturak etorkizunean bere tartea izan dezakeela. Burugogorren herrialde honetan izango al du aukerarik?



### **Olagarroa: etorkizuneko jakia**

Olagarroa, Zumaian hain maite dugun animalia, hainbat modutan prestatu eta irensten dugun piztia, etorkizunean jaki preziatua izan daiteke. Hala dio, behintzat, jende askok. Dietetikan adituen esanetan, dagoen proteina onenetakoa da olagarroarena. Arazoa animalia harrapatzean dago, ordea, gero eta olagarro gutxiago hartzen baita. Hori gutxi balitz, munduko zenbait herritan (Japonia buru dela) olagarroa tonaka jaten da. Eskasiaren aurrean, irtenbidea olagarro granja delakoetan egon daiteke. Azken urteetan halako zenbait granja jarri dira martxan Galizian, esperimentatzeko, eta badirudi emaitza positiboak izan dituztela. Olagarro txikiak lortzea nahiko erraza omen da, olagarro-ama bakoitzak 100.000-500.000 arrautza jartzen baititu eta hiltze tasa ez baita oso handia. Ondoren, gizentze prozesua dator. Horretan ere espeziala da olagarroa. Izan ere, jaten duen ia guztia muskulu bihurtzen baitu animalia honek. Hilabete gutxitan hainbat kilo gizentzen da olagarroa. Zer jaten duen? Denetik: muskuluak, txirlak, soberakinak, etab. Olagarroak ez du asko eskatzen. Leku ilun eta

ezkutuak eta janaria barra-barra.

Zer nolako eskaera dagoen ikusita, eta kostuak nahiko urriak direla kontuan izanik, baliteke olagarroaren produkzio industrialia han urrun ez egotea.

Nikol  Enea

**TABERNA**

Amaiako plaza



INMOBILIARIA 943 143361

BIDAIK 943 143323

Ortega y gasset, 1





## Itxas-Gain: aldaketak datorren denboraldian

Orain hilabete batzuk amaitu zen piraguismo denboraldia. Herriko taldeak, Itxas-Gainek, maila ederra eman zuen denboraldi guztian zehar eta hainbat txapel ekarri zituen etxera. Neguan atsedenean egon beharrean, taldeko piraguistak datorren denboraldia prestatzen ari dira pasa den urritik. Horrez gain, aldaketa dezente izan dira Itxas-Gainen, horien artean zuzendari-tzarena.

Pasa den urtea arte, Ligorio Urruzuno aritu da Itxas-Gainen lehendakari lanetan, taldearen lan ugari bere bizkarrean hartuta. Egoera horretan ezin zen gehiago jarraitu, eta bederatzirentzako pertsonak osatutako zuzendaritza talde batek hartu du Itxas-Gain piraguismo taldearen burua. Itxas-Gain elkarteko bi kidek, Ligorio barne, bi entrenatzailek eta bost piraguistak osatzen dute komisioa eta bakoitzak bere funtzioa eta ardurak izango ditu.

Zuzendaritza aldatzeaz gain, berriak badira entrenatzaile taldean, hala nola, Jose Manuel Balenziagaren itzulera Itxas-Gain. Balenziaga taldean zela bizi izan ditu piraguismo talde zumaiaarrak bere momenturik onenak.

Balenziaga ez da izan taldera itzuli den bakarra. Entrenatzailearekin batera orain urte batzuk taldea utzi zuten piraguista ugari bueltatu da entrenamenduetara. Taldekide berri horiekin

aurreko denboraldietan atera ez zen gizonetako senior talde indartsu bat uretaratzeko aukera izango da aurtengoan. Aipatu digutenez, Euskal Herrian "gerra" emateko moduko taldea izango da.

Helduekin txalupak ateratzeko arazoak zeuden eta antzeko zerbait gertatzen zen aurreko denboraldietan gaztetxoekin. Urteak aurrera joan ahala, kategoria pasatu behar izaten zuten piraguista gazteek. Horrek, eta piraguista gazte berriak ez izateak, gazte mailtan hutsunea egotea ekartzen zuen. Askotan aipatu da herri honetan kirol mota asko eta gazte gutxi daudela. Horrek kirol mota batzuetan jende falta egotea ekartzen omen du. Hala ere, badirudi aurtengoan arazoa ez dela hain larria. Infantil mailatik kadetera bost lagun igo dira, eta sei izan dira Itxas-Gain taldean sartu diren gaztetxoak. Alde horretatik hutsuneak bete dira, behintzat.

Hemendik aste gutxira jokatuko dira denboraldiko lehen karrerak, horien artean garrantzitsuenak neguko Espainiako Txapelketa. Itxas-Gainek bospasei lagun bidaliko ditu txapelketara.

### Oier selekzioarekin

Aurreko urtean zenbait domina lortu zituen Oier Aizpurua piraguista Espainiako selekzioarekin kontzentratuta dago. Denboraldi berrirako erronka nagusia abuztuaren Sevillan jokatu den Munduko Txapelketa izango da. Hasieran Oierrek K-4 ontzian hartuko du parte, baina maila ona erakutsiz gero, baliteke beste ontzietan ere parte hartzea. Orri hauetatik zorterik onena opa diogu Oierri.



# XVIII. Zumaiako Krosa martxoaren 3an

Kirol munduak ez du atsedetik hartzen. Kirol proba bat bestearen atzetik dator eta bata amaitu bezain laster, beste proba bat etortzen da berehala. Orain krosaren txanda da. XVIII. Kros herrikoia izango dugu martxoaren 3an. Goiz guztian zehar, igande horretako lehen orduetatik eguerdia arte, herriko kaleak korrikalariz beteko zaizkigu. Guztira, haur eta helduak batuta, 700 lagun inguru.

Kroseko lehen lasterketak haurrenak izango dira. Goizeko 9:30etatik aurrera, alebinak (1.200 metro korritu beharko dituzte), infantilak (2.200 metro), kadeteak (3.000 metro) eta benjaminak (300 metro) txandakatuko dira Lubaki kiroldegia inguruan. Jarraian, goizeko 10:30etan helduen txanda izango da.

Helduek, emakumeek eta gizonezkoek, 10.200 metro bete beharko dituzte. Ez da izango, aurrekoetan bezala, 5.800 metroko lasterketarik emakumeentzat. Izan ere, lasterketa laburrak antolakuntza aldetik arazo ugari sortzen zituen. Gainera, emakumeek gero eta maila eta indar handiagoa omen dute.

Parte-hartzaileek Ayra Durexeko zubia eta Zubi Txikiaren arteko bira txiki bat eta herria zeharkatzen duen bira handia bi aldiz bete beharko dituzte. Guztira 10.200 metro. Ibilbidea betetzen azkarrenak, orain arte,

Kamel Ziani eta Onintza Zeberio izan dira. Lehenak 1996an ezarri zuen errekorra 30'29" denborarekin eta Zeberiok pasa den urtean hautsi zuen marka 38'25" denborarekin. Probaren irabazleak errekor berria ezartzen badu 150 euro gehiago poltsikoratuko ditu. Aurtengo krosean honako sariak banatuko dira: irabazleak, txapela eta garaikurrak gain, 150 euro irabaziko

ditu; bigarrenak 90 euro eta hirugarrenak 60 euro. Bi lasterketetan sari berdinak banatuko dira.

Otsailaren 11n zabalduko da izena emateko epea. Herritarrek Udaletxean edo Lubaki kiroldegia eman ahal izango dute izena. Parte-hartzaileek 6 euro ordaindu beharko dituzte. Izena azken egunean emanaz gero, 8 euro ordaindu beharko dira.



## Pala txapelketa

Pasa den urteko azken hilabeteetan eskuzko pilota partiduak jokatu ziren. Otsailaren amaieran, berriz, pala partiduak hasiko dira. Otsailaren azken egunetan hasi eta ekainaren amaiera bitartean VIII. San Pedro Saria jokatuko da Odietan.

Txapelketa gizonezkoen eta emakumezkoen mailan jokatzen da. Gizonezkoek dagokienez, herritarrek bakarrik har dezakete parte. Emakumezko txapelketan, aldiz, kanpotarrek ere joka dezakete. Aurreko txapelke-

tekin parekatuz, aurtengoan berrikuntza bat dugu: bikote bakoitzak ordezkari bat apunta dezake. Horrela, ez da partidak bertan behera uzteko arrazoirik izango. Bikote bakoitzak 14 euro ordaindu beharko ditu txapelketan parte hartzeko. Izenak Udaletxean edo Lubaki kiroldegian eman ahal izango dira otsailaren 14a arte. Txapelketa antolatzeko bilera Odietan pilotalekuan izango da, hilaren 18an. Arratsaldeko 8:00etan emakumeena eta 8:30etan gizonezkoena.

**AROZTEGIA**  
Urola 2000, s.l.

- \*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- \*Baserrien zaharberritzea
- \*Enbarkazio konponketa
- \*Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- \*Armairu enpotratuen aurrealdea
- \*Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1      Tel. 943143505

**AITA MARI**  
KAFETEGIA

Julio Beobide, 15      Tel. 943 861395      Zumaiara

**ATERPE**  
OPARIAK ETA DEKORAZIOA

Erribera kalea, 6  
Telefonoa: 943 86 53 87  
20750 ZUMAJA (Gipuzkoa)

# Zumaiarrak Julene Azpeitia sarian irabazle

Azkenean, hilabeteko atzerapenarekin, XIV. Julene Azpeitia sariko epaimahaiak bere (bigarren) erabakia eman du, eta jada badakigu nor diren aurtengo literatur lehiaketako irabazleak. Lehen saria zumaiar bati egokitu zaio, Enara Azkue idazle gazteari, hain zuzen. Zumaiar onena, aldiz, literatur munduan kristorenak eta bi egin dezakeen Josu Waliño izan da. Horra hor Edorta Jimenez, Xabier Mendiguren eta beste idazle ugari osatzen duten zerrendan jada bere lekua duten bi idazle.

Kulebroi baten antza hartu du Julene Azpeitia sariaren XIV. edizio honek. Izan ere, Nerea Azurmendik, Joxean Agirrek, Pako Aristik eta Arantxa Urretabizkaiak osatutako epaimahaiak abenduaren 22ko bileran eman zuten jakitera bere erabakia. Erabakia aho batez eman zuten epaimahaiak. Lehen saria *Hondamendia* izeneko ipuinari ematea erabaki zuten epaimahaiakideek. Bigarren saria, berriz, *Gerrakoak* lanak irabazi zuten, eta zumaiar onenaren saria *Alak*



Saria jaso zuenean, halako aurpegia jarri zitzaion Josu Waliñori

*eramango zaitu ala...?* ipuinarentzat izan zen.

Ipuinen egileen izenak azaltzen ziren gutun azalak irekitzean izan zen lehen sorpresa, lehen eta bigarren sariaren irabazlea pertsona berbera baitzen, Laida Martinez Navarro bilbotarra, hain zuzen. Halako egoera batean zer egin? Oinarrietan bi edo lan gehiago aurkeztearen aurkako ezer agertzen ez zenez (baliteke edizio honen ondoren oinarriak aldatzea), ontzat eman zen epaimahaiaren erabakia.

Bigarren sorpresa handik egun gutxira izan zen. Izan ere, Laida Martinez berak Udalera deitu eta bi ipuinak aurretik sarituak izan zirela aitortu

Josu Waliño bere ipuinak sinatzen

zuen. Lehen, *Hondamendia* izenekoa, ekainean izan zen saritua Ordizian, eta bestea, *Gerrakoak*, azaroan Errenterian. Euskara Batzordekoak, noski, zur eta lur. Oinarrietako 1. puntuan argi agertzen denez, "beste lehiaketaren batean saririk jaso edo/eta literatur sormenerako laguntzaren bat jasoa duen idazlanak ezin izango du parte hartu". Ondorioz, idazkariarekin arazoa aztertu ondoren, Laida Martinezi saririk ez ematea eta epaimahai berriro biltzea erabaki zen.

Ia hilabeteren ondoren, epaimahaiakideak berriro bildu ziren. Beraien lana ez zen erraza esan.

Azkenean, lehen saria

Enara Azkue idazle gazte zumaia-rraren *Alak eramango zaitu ala...?* ipuinari ematea erabaki zuten. Enarak hainbat aldiz argitaratu ditu bere ipuinak aldizkari honetan eta sari honekin berriro ere literaturarako gaitasuna duela frogatu du.

Hirugarren sorpresa zumaiar onenaren saria nork irabazi duen jakitean etorri da: Josu Waliño. Camilo Jose Celak eta J.J. Benitezek badute jada oinordekoa. Noizko lehen nobela? Zumaia maisu lan hori irakurtzeko irrikaz dago.

Hau idazteko unean, sari banaketa ekitaldia noiz izango den erabaki gabe dago, baina laster batean izango dela uste da.



TV-VIDEO-HIFI  
ELEKTROGAILUAK  
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK  
ERRIBERA, 8 943 861694



Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7  
tailerra: 943 860914  
denda: 943 862385

**TOMAS  
TABERNA**

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16



Fitxa-teknikoa

**Liburua:** Clandestino  
**Egilea:** James Ellroy  
**Argitaletxea:** Ediciones B  
**Urtea:** 1982

## Maixu baten lehen pausoak

Literatura poliziakoa maite duen edonork badaki (edo jakin beharko luke, behintzat) James Ellroy genero horretako maisuetako bat dela. 50eko hamarkada, detektibe gogorrak, Los Angeleseko klub eta tabernetan aurki ditzakegun emakumeak, ustelkeria, biolentzia, perbertsioa. Hori dena eta gehiago aurki dezakegu Ellroyen liburuetan. Orain, America eta Seis de los grandes eleberriek, eta gehienbat, Ellroyen liburu batean oinarritutako L.A. Confidential filmak izandako sona eta arrakastaren ondoren, idazle honek 1982an Estatu Batuetan argitaratu zuen eleberria kaleratu da.

Maisu bihurtu den idazle baten lehen pausoekin egiten dugu topo Clandestino honetan. Ellroyen bigarren liburua da (aurretik Réquiem por Brown idatzi zuen) eta jada bere literaturaren ardatzak izango diren gaiak aurki ditzakegu: poliziaren ustelkeria, hilketa bortitzak, biolentziaren erabilera geldiezina, homosexualek jasaten zuen zapalkuntza, zinema, etab. Dena, nola ez, Los Angeleseko hirian girotuta.

Ellroyen bizitzaren zati batzuk aurki ditzakegu, hala nola, dibortziatutako emakume baten hilketa (Ellroyek 10 urte inguru zituela erail zuten bere ama eta oraindik ez da argitu kasua) edo golfean jokatzeko zaletasuna.

Nahiz eta jarraian egingo dituen liburuen mailara heldu ez, une oso onak dituen liburua da honakoa. Detektibe, polizia eta emagalduek protagonizatutako liburuak maite dituenentzat egokia.

## ZINE FORUM



Otsailak 14, osteguna  
*La ciénaga*

**Zuz:** Lucrecia Martel  
**Akt:** Graciela Borges,  
 Mercedes Morán, Martín  
 Adjemian.

*La ciénaga*-ri darion atmosfera itogarri eta gaixoberak Tennessee Williams-en literatur munduan hain ugariak ziren hegoaldeko pasarte tragikoak ekartzen dizkigu gogora. Lucrecia Martel-ek, bere lehen lanean, bikain erakusten digu mikrokosmo itxi batean oso pertsonaia desberdinek arnasten duten giro kutsatua, beroak are gehiago kirastua; horretarako, Argentinako ipar-mendebaldean oporrak pasatu behar dituen familia beldurgarri baten miseriak agerian jarriko dizkigu, ongi ikusteko moduan.

Pelikularen sarrera bikaina da: giza talde bat, eserleku tolesgarriak eta edalontziak eskuan hartuta, garai batean agian igerileku izan zenaren inguruan bilduta. Igerilekuaren inguruan intsektu zaratsuen hegaldia entzuten da, baina ez dira airean dabilzan bakarrak; izan ere, tragedia edo "zerbait" ere hor nonbait dabilela sumatzen baita, eta pentsarazten digu edozein unetan gerta daitekeela zerbait berezia, bizitza monotono eta etsipenez josi horiek leherraraziko dituen. Plano klaustrofobikoetan preso, aktoreek hainbat izakiren bizitzak erakusten dizkigute. Alde batetik, helduak, duela asko bizitzaren iparrorratza galduta eta eguneroko bizimodu patetikoak agintzen dien bezala bizitzen ohituak; bestetik, gazteak, nahitaez helduek ezarritako jarraibideak betetzera behartuak. Dramatismo gehiegi erabili gabe eta komedia barregarriaren atea zabaldua, Martelek sentsazioen eta metaforen puzzle konplexua eraikitzen du, akabera artistiko bikain eta iradokitzaileez betetako eszenekin; horren adibide dira hainbat eszena gogoangarri; adibidez, haur koadrila erdi basatiarenak, eskopeta eskuan hartuta eta aurpegiak orbanek eta zauriez josiak, nola ibiltzen diren "La mandrágora" finkaren inguruko basoetan, lokatetan preso dauden izakien atzetik, harrapatu nahian, eta gurasoak, bien bitartean, finka hartantxe, beraien bizimodu alderraia alkohol eta desilusion itotzen.

**OSTOLAZA**  
 BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea  
 tel: 943 86 16 66  
 e-mail: denda@ostolaza.com  
 www.ostolaza.com

**NARRONDOS**  
**TABERNA**

Goizeko 5:30etatik  
 astelehenetik larunbatera  
 PINTXO eta OGITARTEKOAK  
 TEL: 943 86 24 90

**AR** Ricardo J. Azcue Yeregui  
 Abokatu + Asegurak  
 Finka Administrazioak

bonin aguirre 4, behea  
 20.750 zumala (gipuzkoa)  
 E-mail: rjzcue@euskalnet.net

Tel: 943 862651  
 Fax: 943 862746

# otsaila agenda



Inauterietako kartel irabazlea. Egilea Bertil Lagerström

## INAUTERIAK

### ostirala 8

16:00etan, beheko plazan, herriko ikastetxeen inauteri festa, eta **hur berbena** Tipiti Jai-ekin

### larunbata 9

16:00etan, ludotekan, **Briel magoa**-rekin ikuskizuna. Ondoren inauteri jaialdia.

18:00etan **Udal Musika Bandaren** inauterietako kalejira.

18:30etatik 21:30etara, beheko plazan, **dantzaldia** Lisker taldearekin.

19:00etan kalez-kale **MacJeara's Band dixieland** taldearen saioa.

22:00etatik 1:00etara **gazte festa** Oxford aretoan.

23:00etan hasita, **Tximeletak txaragaren** kalejira.

### igandea 10

12:00etan **Aldatz Gora fanfarrearen** kalejira.

18:30etatik aurrera **Zumai txaragaren** musika saioa.

### astelehena 11

11:30etan eta 16:00etan Maria eta Jose aretoan, **Takolo, Pirritx eta Porrotx** pailasoen Aupa Kintxo! ikuskizuna.

Gainera: tabernetako mozorro lehiaketa (180 euro) eta inauterietako argazki lehiaketa (60 eurotako 3 sari).

# 10

igandea

HAURREN ZINEA

17:00etan

Aita Mari zinean

# 12

asteartea

ERAKUSKETA

"Argizaiolak"

Oxford aretoan



**AUTO-ESKOLA**





- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

## ZUMAI A

Basadi, 12 behea    Tel. 943 861018

## MATRIKULAZIOA AEKN

Zumaia Txomin Agirre AEK Euskaltegian matrikulatzeko epea berriz ere zabalik duzue urtarrilaren 28tik otsailaren 15era. Euskalduntzeko maila guztiak, Ega eta Hizkuntza Eskakizunak. Bulego ordutegia goizez 10etatik 12etara, arratsaldez 5etatik 9etara. [zumaia@aechnet.net](mailto:zumaia@aechnet.net).

## "Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

**Aita Mari 3.blokea**  
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

ODONTOLOGIA    PROTESIS DENTAL

**CLINICA DENTAL ZUMAI HORTZ KLINIKA**

Plazeta de los Fueros - Baj  
Tel. (943) 86 14 34  
20750 ZUMAI (Gipuzkoa)

Gerente  
**Rafael Inaundegi Elgoibar**

JATETXEA

LUBAKI

Basadi Auzategia, 15    Tel. 943 14 34 84    ZUMAI A

# S DORNUTEGI

## SUKALDEKO ALTZARIAK

Basadi auzoa, 10 behea Tel: 943 86 20 51




Sukalderako hornikuntza diseinuak

Lanen zuzendaritza

Edozein sukaldetara moldaturiko diseinu bereziak

Kalitate-prezioan parekorik ez



KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA

ETXEZARRETA, 6  
ZUMAIA  
TEL. 861078

## KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA  
EGITEN DITUGU.  
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO  
KONPROMEZURIK GABE

*Zatuz eta galdetu*

GAS NATURALA  
BUTANO  
PROPANO

